**HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA**

**INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**SARRERA**

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legearen 4. artikulua IVAPen xedeak eta helburuak zehazten ditu:

1. EAEko Administrazio Autonomoak kontratatu behar dituen funtzionario eta langileak hautatzea eta, arlo horretan, bere jarduerak koordinatzea IVAP atxikita dagoen sailari dagozkion zerbitzuekin.
2. Funtzionarioak hautatzea, beste administrazio publikoren baten edo araubide juridikoaren eskariz.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioen eta kontratadunen prestakuntza eta hobekuntza, edo beste edozein administrazio publikok edo ordenamendu juridikoak haren esku utz ditzakeenena.
4. Lurralde historikoekin, udalekin eta Euskadiko toki-administrazioko gainerako erakundeekin beren langileak prestatzeko eta hobetzeko lankidetzaz sustatzea.
5. Euskara herri-administrazioan sartu, zabaldu, ezarri eta normalizatzea, eta administrazio-hizkera finkatzea, Euskararen Erabilera Normalizatzeako Oinarrizko Legean xedatutakoa betez.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen berezitasun juridiko, finantzario eta estatistikoaren ikerketa, irakaskuntza eta zabalkundea.
7. Administrazioaren zientzia ikertu, irakatsi eta zabaltzea, eta zientzia hori Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan ezartzea.
8. Espainiako edo atzerriko antzeko beste erakunde batzuekin elkartrukeak eta hitzarmenak egitea.

**ERAKUNDEAREN JARDUERAK**

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren bidez erabaki zena kontuan izanda, hauek izango dira jarduerak:

**1216 programa**

Erakundeari lotuta dauden programak eta eskolak kudeatzea, bai ekonomia eta finantzen aldetik, bai legearen aldetik.

Euskal administrazioen berezitasun juridiko, politiko, administratibo eta ekonomikoak ikertu, irakatsi eta zabaltzea.

Zuzenbide publikoari eta administrazio-zientziari buruzko hitzaldi, jardunaldi eta mintegiak. Garrantzi berezia emango zaio euskal autonomia-erkidegoaren

**INTRODUCCIÓN**

El artículo 4 de la ley 16/1983, 27 de julio, sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública, establece entre los fines y objetivos del Instituto:

1. La selección de funcionarios y funcionarias y del personal a contratar por la Administración Autónoma del País Vasco, coordinando sus actuaciones, en este campo, con los servicios correspondientes del Departamento al cual está adscrito.
2. La selección de los funcionarios y funcionarias que otra Administración Pública o el Ordenamiento jurídico pudiere encomendarle.
3. La formación y perfeccionamiento de los funcionarios/as y contratados/as de la Administración Autónoma del País Vasco, o que cualquier otra Administración Pública o el ordenamiento jurídico pudiere encomendarle.
4. Fomentar la colaboración con los Territorios Históricos, Municipios y demás Entidades de la Administración Local de Euskadi en la formación y perfeccionamiento de su personal.
5. La introducción, difusión y aplicación y normalización del euskera en la Administración Pública, así como la fijación de su lenguaje administrativo, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Básica de Normalización del uso del Euskera.
6. La investigación, docencia y difusión de las peculiaridades jurídicas, financieras y estadísticas de las Administraciones del País Vasco.
7. La investigación, docencia y difusión de la ciencia de la Administración y su implantación en las diversas Administraciones del País Vasco.
8. El establecimiento de intercambios y convenios con otras entidades análogas españolas o extranjeras.

**ACTIVIDADES DEL ORGANISMO**

Teniendo en cuenta el Decreto 133/2021, de 4 de mayo, por el que se regula la estructura y funciones del Instituto Vasco de Administración Pública, las actividades serán:

**Programa 1216**

Gestión económico-financiera y jurídica de los diferentes programas y escuelas adscritas al Instituto.

Investigación, docencia y difusión de las peculiaridades jurídico-políticas, administrativas y económicas de las Administraciones Vascas.

Congresos, Jornadas y Seminarios de carácter académico sobre el Derecho Público y la Ciencia de la Administración, con especial incidencia en la realidad

errealitateari.

Hirigintzari, lurralde-antolamenduari eta ingurumenari lotutako gai teknikoen eta metodologiaren prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko eta hala eskatzen duten beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak eta lan-kontratudun langileak hautatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde-mailako Administrazio langile publikoei lan-prestakuntza eta hobekuntza eskaintzeko ikastaroak eta mintegiak.

EAEko Toki Administrazio eta Foru Administrazio langile publikoei lan-prestakuntza eta hobekuntza eskaintzeko ikastaroak eta mintegiak.

#### 4714 programa

Euskararen ezagutza ebaluatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztapenean oinarritua eta Funtzio Publikoan sartzeko hautaketa-prozesuetan txertatua.

EAEko administrazioetako langile publikoen hizkuntza-gaitasuna, bai orokorra (lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea), bai berariazkoa (lanpostuan jarduera elebiduna izatea helburu duena): euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak, birziklatzeko ikastaroak, ahozko jarioari buruzko ikastaroak, administrazio-hizkerari buruzko ikastaroak.

Administrazio agiriak normalitzea eta euskarazko administrazio-hizkera finkatzea.

Administrazio euskara hedatzeko eta hizkuntzaren erabilera bultzatzeko argitalpenak prestatzea.

Administrazio publikoetako langileen euskalduntze-alfabetatze prozesuak bideratzeko aholkularitza ematea.

Administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaitasuna neurtzea hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi orokorretan, eta administrazio publikoetan lan egin nahi duten hautagaien hizkuntza-gaitasuna neurtzea hautaketa-prozesuetan.

Era berean, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez, administrazio publikoek agintzen dizkieten itzulpenak egingo dira, eta testuen baliokidetasun juridikoa bermatu da.

Estatuko Aldizkari Ofizialaren lege-mailako xedapenak euskaratuko dira.

Horrez gainera, organo eskudunek agintzen dizkieten interpretazio-saioak egingo ditu.

Bestalde, euskarazko lege- eta administrazio-hizkuntza eta horren terminologia aztertu, finkatu eta zabaltzeko lanak egingo ditu.

Itzulpenen datu-basea elikatu eta mantenduko du, eta administrazio itzultzaileen eta erabiltzaileen esku jarriko.

autonómica vasca.

Actividades formativas y de divulgación de materias técnicas y metodologías vinculadas al Urbanismo, la Ordenación del Territorio y el Medio Ambiente.

Selección de personal funcionario y laboral de la Administración General e Institucional del País Vasco y de otras Administraciones Públicas de Euskadi que así lo encomienden.

Cursos y seminarios de formación y perfeccionamiento profesional del personal público de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma Vasca.

Cursos y seminarios de formación y perfeccionamiento dirigidos al personal público de las Administraciones local y foral vasca.

#### Programa 4714

Evaluación del conocimiento del euskera basada en la acreditación de los perfiles lingüísticos del personal al servicio de las Administraciones Públicas de Euskadi y del inserto en los procesos selectivos de acceso a la Función pública.

Capacitación lingüística, tanto general (orientada a la acreditación de los perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo) como específica (orientada al desempeño bilingüe del puesto de trabajo) de personal de las administraciones públicas vascas: cursos de euskaldunización y alfabetización, cursos de reciclaje y de expresión oral, cursos de lenguaje administrativo.

Normalización de documentos administrativos y fijación del lenguaje administrativo en euskera.

Realización de publicaciones que contribuyan a la difusión del euskera administrativo y a la promoción de la lengua.

Asesoramiento a las Administraciones Públicas en materia de euskaldunización-alfabetización de su personal.

Evaluación de la aptitud lingüística del personal al servicio de las administraciones públicas vascas en las convocatorias generales de acreditación de perfiles lingüísticos y evaluación de la aptitud lingüística de los/las aspirantes a entrar en las administraciones públicas en los correspondientes procesos selectivos.

Así mismo, a través del Servicio Oficial de Traductores se realizarán las traducciones de todo tipo que le sean encargadas por las administraciones públicas, garantizando la equivalencia jurídica de las mismas.

Se traducirán al euskera disposiciones con rango de ley del BOE.

Igualmente, hará los trabajos de interpretación que le sean encargados por los órganos correspondientes.

Por otra parte, trabajará en el estudio, fijación y difusión de la terminología jurídico-administrativa en euskera.

Mantendrá y actualizará la base de datos de traducciones, poniéndola a disposición del personal traductor y resto de usuarios/as de la Administración.

Azkenik, itzultzaileak, interpreteak eta terminologoak prestatzeko ekintzak eta prestakuntza-saioak egingo ditu.

Finalmente, llevará a cabo actividades diversas para la formación de personal traductor, intérprete y terminólogo.

## **2021EAN EGINDAKO LANIK GARRANTZITSUENAK**

### **Kudeaketa aurreratuari dagokiona:**

2021-2024 Plan Estrategikoa egitea.

2020ko Kudeaketa Plana ebaluatzea.

2021eko Kudeaketa Plana egitea.

IVAPen 2020ko Jardueren Oroitza argitaratzea.

Prestakuntza Zerbitzuaren eta Liburutegia/Dokumentazio Gunearen zerbitzuen kartak ebaluatzea.

Pertsonen 7. gogobetetasuna-inkesta egitea.

Aliatuen gogobetetasuna neurtzea.

Bezero instituzionalaren 5. gogobetetasun-inkesta egitea.

Euskadiko erakunde publiko edota pribatuen Kudeaketa aurreratuari buruzko kanpo ebaluaketetan parte-hartzea.

Kudeaketa aurreratuari edota erakundearen lan-esparruarekin lotutako jarduerari buruzko hainbat foroetan parte-hartzea.

### **Informatika-arloari dagokiona:**

IVAPeko ekipamendu informatiko guztiak mantendu edo eguneratu ditugu.

IVAPeko 20 aplikazioak mantendu eta eguneratu ditugu. Beharrezko eguneraketa tekniko eta teknologikoak egin ditugu, eta funtzionalitate berri batzuk ere sartu ditugu, kudeaketa-premiei erantzutearren.

Solaskidegunen sartu da euskalduntze-ikastaroetarako eskabideen eta bertaratzearen eta ebaluazioaren jarraipenaren eskaera telematikoak bidaltzea, paperezko transakzioak eta fitxategien bidalketa ezabatzeke.

IVAPeko aldizkariaren aplikazioan, artikulua fitxa hobetu dugu eta DOI (Objektu digitalaren identifikatzailea) inplementatu dugu.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren, Arabako Batzar Nagusien, Eusko Legebiltzarraren eta Arabako Foru Suhiltzaileen eskura jarri da hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa, prozesu horiek egiteko, euskarri informatiko guztia emanez.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lan-eskaintza publikoak kudeatzeko aplikazioa abian jartzea.

Adimen artifizialeko neurona-sareetan oinarritutako itzulpen-memoriak anonimizatzeko sistema automatikoa garatzeko oinarri teknikoen plegua prestatzea.

Itzultzaile neuronal juridiko administratiboaren entrenamendua hobetu da, itzulpen-memoria berriekin.

Mugikorretarako aplikazio bat jarri da herritarren eskura,

## **PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2021**

### **En relación con el Área de Gestión avanzada**

Elaboración del Plan estratégico 2021-2024.

Evaluación del Plan de Gestión 2020.

Elaboración del Plan de Gestión 2021.

Publicación de la Memoria de Actividad del IVAP 2020.

Evaluación de las cartas de servicios de Formación y Biblioteca/Centro de Documentación.

7ª evaluación de la satisfacción de las personas.

Evaluación de la satisfacción de aliados.

5ª evaluación de la satisfacción del cliente institucional.

Participación en evaluaciones externas de gestión avanzada en organizaciones públicas y/o privadas de Euskadi.

Participación en varios foros sobre gestión avanzada y/o relacionados con la actividad del Instituto.

### **En relación con el Área de Informática:**

Todos los equipos informáticos del IVAP se han mantenido y/o actualizado.

Se han mantenido y actualizado las 20 aplicaciones del IVAP, con las actualizaciones técnicas y tecnológicas necesarias, además de incorporar nuevas funcionalidades para satisfacer las necesidades de gestión.

Se ha incluido en Solaskidegune el envío de solicitudes telemáticas para los cursos de euskaldunización, seguimiento de asistencia y evaluación, para eliminar transacciones en papel y el envío de ficheros.

En la aplicación de revistas del IVAP se ha mejorado la ficha del artículo e implementado el DOI (Identificador de objeto digital).

Se ha puesto a disposición de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, Juntas Generales de Álava, Parlamento Vasco y Bomberas/os Forales de Álava, la aplicación de gestión de procesos selectivos para la realización de los mismos, dando todo el soporte informático.

Puesta en marcha en producción de la aplicación para la gestión de Ofertas Públicas de Empleo de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Preparación del pliego de bases técnicas para el desarrollo de un sistema automático de anonimización de memorias de traducción basado en redes neuronales de inteligencia artificial.

Se ha mejorado el entrenamiento del traductor neuronal jurídico administrativo con nuevas memorias de traducción.

Se ha puesto a disposición de la ciudadanía una aplicación

IVAPen webgunean argitaratzen diren berrikuntzetan harpidetzeko, hautaketa-prozesuei eta argitalpenei dagokienez.

**Azterlan eta Argitalpenak zerbitzuari dagokiona:**

Ikastaroak eta jardunaldiak antolatu eta burutzea, bakarka edo ikerketa eta prestakuntzako beste zentroekin batera (EHU-UPV, BJKN). Aurtengoak gai hauen inguruan burutu ditugu: Konstituzioaren eraldaketaren eta erreformaren erronkak eta mugak; eta kontsumitzaileen babesa Europar Batasunaren esparruan.

Zuzenbide Publikoaren eta Administrazio Zientziaren arloan ikerketa eta langile espezializatuen prestakuntza sustatzea. Dagoeneko kudeatu dira 2020-2021 bitarteko laguntzetarako deialdiaren azken zatia, 2021-2022 bitarteko laguntzetarako deialdiaren lehen zatia eta 2021eko ikerketa saria. Hauek izan dira aztergai nagusiak: Espainiako eta Europako ordenamendu juridikoaren diziplina anitzeko azterketa Istanbulgo Hitzarmenaren argitan; Euskadin genero-erikiko sentikorrek diren parlamentuak: Eusko Legebiltzarra eta Batzar Nagusiak.

Administrazio Publikoa eta Administrazio Zientzia, batez ere Euskadiko herri-araubidearen berezitasunak hobeto ezagutzeko eta aldi berean ezagutzera emateko balioko duten azterlanak eta ikerlanak argitaratzea.

2021. urtean, IVAPen, programa honetan, 17 liburu eta 6 aldizkari argitaratu ditugu.

Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkariaren alderdi teknikoa kudeatzea. (3 zenbaki).

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren alderdi teknikoa kudeatzea (3 zenbaki).

Hainbat administrazio publikoren jarduera hobetzeko eta arrazionalizatzeko egindako aholkularitza-eskaerei erantzuna eman zaie. Hori dena, bai idatzizko txostenen bidez, bai ahozko kontsultei emandako erantzunen bidez, bai administrazio eskatzaileak garatu dituen kudeaketa-prozesuetan laguntza eta partaidetza eskainita egin da.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera udako ikastaro bat eta doktorego programetako ikastaroak sustatzea eta antolatzea.

2021eko Uda ikastaroen edizioan antolatu dugun ikastaroak Konstituzioaren eraldaketaren eta erreformaren erronkak eta mugak aztertu ditu.

**EVETUri dagokiona:**

2020-2021 ikasturtean modulu bidezko prestakuntza-ekintza bere osotasunean egin da: hain zuzen ere "Hirigintzako XLVI. (46) ikastaroa" 2020-2021, 700 ikastordu. Zortzi pertsonak egin dituzte ikastaroko 300 orduko aukerako praktikak erakunde edota enpresetan.

Bi beka esleitu dira aipatutako ikastaroa egiteko.

2021ean, hirigintza- eta lurralde antolamenduaren eta ingurumenaren arloko 12 prestakuntza-jarduera espezializatu diseinatu, antolatu eta kudeatu dira (ikastaro monografikoak) funtzionarioentzat eta profesionalentzat.

para móviles de suscripción a las novedades que se publiquen en la web del IVAP, referente a los procesos selectivos y publicaciones.

**En relación con el servicio de Estudios y Publicaciones**

Organización y celebración, individualmente o en colaboración con otros centros de formación e investigación (EHU-UPV, CGPJ), de cursos y jornadas sobre temas relacionados con los desafíos y límites de la transformación y reforma constitucional; y la protección de las personas consumidoras en el marco de la Unión Europea.

Promoción de la investigación y de la formación de personal especializado en el ámbito del Derecho Público y la Ciencia de la Administración. Se ha gestionado la parte final de la convocatoria de ayudas del periodo 2020-2021, la parte inicial de la convocatoria de ayudas del periodo 2021-2022 y el premio de investigación correspondiente a 2021. Las áreas objeto de investigación se han centrado en: análisis multidisciplinar del ordenamiento jurídico español y europeo a la luz del Convenio de Estambul; parlamentos sensibles al género en Euskadi: Parlamento Vasco y Juntas Generales.

Edición de estudios e investigaciones que contribuyan al mejor conocimiento y difusión de la Administración Pública y la Ciencia de la Administración, con especial incidencia en las peculiaridades del régimen público vasco.

En el año 2021, en este programa, hemos publicado 17 monografías y 6 revistas.

Gestión, en su vertiente técnica, de la Revista Vasca de Administración Pública (3 números).

Gestión, en su vertiente técnica, de la Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas (3 números).

Atención de las solicitudes de asesoramiento de las Administraciones Públicas en aspectos que redunden en la mejora y racionalización del funcionamiento de estas, tanto mediante la elaboración de informes escritos, como mediante la respuesta a consultas orales o el acompañamiento en procesos de gestión de la administración solicitante.

Promoción, en colaboración con la Universidad del País Vasco, de un curso de verano, así como de cursos integrados en programas de doctorado.

En la edición de Cursos de Verano de 2021, el curso que hemos organizado analizó los desafíos y límites de la transformación y reforma constitucional.

**En relación a EVETU:**

Durante el curso 2020-2021, se ha realizado en su totalidad el "XLVI (46) Curso de Urbanismo y Estudios territoriales" 2020-2021, de 700 horas de duración. Seis personas han realizado las correspondientes prácticas optativas de 300 horas en instituciones y/o empresas.

Se han adjudicado dos becas para la realización del citado curso.

Organización, gestión y desarrollo durante 2021 de 12 actividades formativas especializadas, cursos monográficos, en materia urbanística, territorial y de medio ambiente para personal funcionario y profesionales.

Eskari handiko ikastaroen edizioak bikoiztu dira, gelen edukiaren murrizketa ordeztzeko.

Prestakuntza jardueren diseinua eta kudeaketan hobekuntzak.

Prestakuntza jardueretan emandako urrutiko eskolak plataforma bat erabiliz, handitu egin dira.

Handitu egin dira euskaraz egindako prestakuntza jarduerak.

Ikastaroen eskaeren tramitazio elektronikoa ezarri da.

Hirigintzaren, Lurralde-antolamenduaren eta Ingurumenaren arloan, espezializatutako pertsonalaren prestakuntza sustatzea.

#### **Dokumentazio-guneari dagokiona:**

IVAPek espezializazio-arlotzat dituen gaiei buruzko 33 informazio-buletin egitea.

Bertako gelan Dokumentazio-guneko monografiak eta aldizkako argitalpenen Liburutegian/Dokumentazio guneko gelan, 66 kontsulta.

Funts monografikoen 488 mailegu.

264 artikulua-eskaera.

40 informazio-eskaera.

7.775 kontsulta web-orrian.

#### **Hautaketa-zerbitzuari dagokiona:**

Goi-mailako teknikarien kidegoko Albaitaritzako Lizentzia aukerako lan-poltsa (hiltegiko teknikariak) handitzeko hautaketa-prozesu bat kudeatu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen araudi berriaren arabera, Atarian 16 eskaintza kudeatu dira lanpostuak betetzeko, dauden lan-poltsetan hautagairik ez dagoelako.

EAEko administrazio publikoek deitutako karrerako funtzionarioak hautatzera bideratutako prozesuak epaitzeaz arduratzen diren epaimahai kalifikatzaileetan ordezkariak izendatzea eta jarraipena egitea.

Lankidetzan aritzea Toki eta Foru Administrazioekin haien deialdietako hautaketa-prozesuak kudeatzeko, haiek eskatzen dutenean.

Lankidetzan aritzea Hezkuntza Sailarekin Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoetan sartzeko, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere hautaketa-prozesuen kudeaketan (1.148 lanpostu), kudeaketa gomendatzeko egindako akordioaren bidez.

Prozesu horiek bertan behera geratu ziren 2020an, COVID-19 dela-eta; eta 2021eko ekainean gauzatu dira.

Se han duplicado ediciones de cursos con alta demanda para suplir la reducción de los aforos.

Mejora del diseño y gestión de las actividades formativas.

Incremento de impartición de clases a distancia en actividades formativas a través de plataformas.

Incremento de actividades formativas en euskera.

Implantación de la tramitación electrónica para las solicitudes de cursos.

Promoción de la formación de personal especializado en el ámbito del Urbanismo, la Ordenación del Territorio y el Medio Ambiente.

#### **En relación con el Centro de Documentación:**

Elaboración de 33 boletines informativos sobre las materias objeto de especialización del IVAP.

66 consultas en sala de las monografías y publicaciones periódicas de que dispone la Biblioteca/ Centro de Documentación.

488 préstamos de fondos monográficos.

264 peticiones de artículos.

40 consultas de información.

7.775 consultas en la página web.

#### **En relación con el Servicio de Selección:**

Se ha gestionado un proceso selectivo convocado para la ampliación de la bolsa de trabajo del Cuerpo Superior Facultativo, Opción Licenciatura en Veterinaria (técnicos-as de matadero).

De acuerdo a la nueva normativa por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, se han gestionado 16 ofertas en el Portal para cubrir puestos por inexistencia de aspirantes en las bolsas de trabajo existentes.

Designación y seguimiento de los y las representantes en los Tribunales Calificadores encargados de juzgar los procesos destinados a seleccionar funcionarios/as de carrera convocados por las administraciones vascas.

Colaboración con la Administración Local y Foral en la gestión y asesoramiento de los procesos selectivos por ellas convocados, cuando así lo han solicitado.

Colaboración en la gestión de los procesos selectivos para el ingreso y acceso al Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, de ingreso al Cuerpo de Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional y procedimiento de adquisición de nuevas especialidades por el personal funcionario de los citados Cuerpos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el Departamento de Educación (1.148 plazas) mediante un acuerdo de encomienda de gestión.

Estos procesos fueron suspendidos en 2020 por la COVID19 y se han llevado a cabo en junio de 2021.



Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak sinatutako kudeaketa-gomendioaren bidezko lankidetzak, bitarteko izendapenaren bidez Idazkaritzako Kontu-hartzailetzaren Azpieskalan Estaturako gaikuntza duten Toki Administrazioaren funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesu bat egiteko.

#### **Prestakuntza-zerbitzuari dagokiona:**

2021. urteko prestakuntza-plana gauzatzea Eusko Jaurlaritzan.

2022. urterako prestakuntza-plana diseinatzea Eusko Jaurlaritzan.

EUDELekin eta hiru foru-aldundiekin antolatutako prestakuntza-plana, udaletako langileei zuzendua, gauzatzea.

Aurrean aipatutako erakundeekin batera 2022. urteko prestakuntza-plana diseinatzea.

Tokiko zuzendaritza publikoko prestakuntza bultzatzea (prestakuntza ibilbideak eta lidergoa).

Hautaketa-prozesuko berariazko prestakuntza-ikastaro bat sortzea, idazkaritza-kontuhartzailetzako azpieskalan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioaren funtzionarioentzat gordetako lanpostuen lan-poltsa bat sortzeko.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin prestakuntza-arloan egiten dugun lan komunari ekin.

Euskaraz eskaintzen diren ikastaro-kopurua handitzea, bai ikastaro presentzialei, bai lineakoei dagokienez.

Gaitasun digitaleko I. eta II. mailetarako eduki didaktikoak lantzea eta III. mailari dagozkion material berriak sartzeta.

Hiru erakundeei aholkularitza metodologikoa prestakuntza beharren diagnostikoari buruz.

Antolaturiko prestakuntza ekintzen diseinua, kudeaketa eta ebaluaketa hobetzeko metodologiak egitea.

Aurrerabide proiektuaren prestakuntza-ekintzen diseinu eta kudeaketan parte-hartzea.

Administrazioarako lanbide-prestakuntza eredu bat sortzeko lan-taldean parte-hartzea estatuko Eskolekin eta erakundeekin.

#### **Hizkuntza-prestakuntza arloari dagokiona:**

EAEko hitzartutako erakundeetako langileen hizkuntza-prestakuntza, hau da, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko ikastaroetan (aurrez aurreko nahiz autoikaskuntzakoak) izena emateko Solaskidegune webgunea erabili genuen iaz, lehenengo aldiz. Aurten ere horrela egin dugu hitzartutako erakundeekin eta Eusko Jaurlaritzako langileekin ere: kudeaketa Solaskidegune bidez egiteko prestaketa-lanak egin ditugu.

Colaboración mediante una encomienda de gestión celebrada entre la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos y el Instituto Vasco de Administración Pública para la realización del proceso selectivo dirigido a constituir una relación de personas candidatas propia para la provisión, mediante nombramiento interino, de puestos reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional de la subescala de Secretaría-Intervención.

#### **En relación con el Servicio de Formación:**

Ejecución del plan de formación del año 2021 en el Gobierno Vasco.

Diseño del plan de formación para el Gobierno Vasco para el año 2022.

Ejecución del plan de formación para el personal de los Ayuntamientos elaborado conjuntamente con EUDEL y las tres Diputaciones Forales.

Diseño conjuntamente con las instituciones arriba señaladas del plan de formación 2022.

Impulso a la formación en dirección pública local (Itinerarios formativos y liderazgo).

Creación de un curso de formación específico del proceso selectivo para la creación de una bolsa de trabajo de los puestos reservados al personal funcionario de administración local con habilitación de carácter nacional de la subescala de secretaría-intervención.

Fortalecer el trabajo colaborativo en el campo de la formación que se realiza con las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

Incremento del número de acciones formativas en euskera, tanto en la modalidad presencial, como online.

Actualización de materiales didácticos para los niveles I y II e inclusión de nuevos materiales correspondientes al nivel III en competencias digitales.

Asesoramiento metodológico a tres instituciones sobre el diagnóstico de necesidades formativas.

Elaboración de metodologías para la mejora en el diseño, gestión y evaluación de las acciones formativas organizadas.

Colaboración en el diseño y gestión de las acciones formativas del proyecto Aurrerabide.

Participación, con otras Escuelas e Institutos del estado en el grupo de trabajo para la creación de un modelo de cualificaciones profesionales para la Administración.

#### **En relación con el Área de Formación Lingüística:**

El año pasado, por primera vez, utilizamos la web Solaskidegune para la tramitación telemática de las solicitudes de los cursos de euskera del personal al servicio de las administraciones convenidas con el IVAP, cuyo objetivo es la acreditación de los perfiles lingüísticos del personal al servicio de dichas administraciones públicas vascas. Este año, hemos seguido utilizando la misma web y hemos realizado los trabajos para poder utilizarla también para el personal del Gobierno Vasco.

EAEko administrazio publikoetako erabilera-planen testuinguruan urteik urtera ikastaro berri gehiago eskaintzen ditugu. Aurten, besteak beste, itzultzaile neuronalak guztion eskura jarri den honetan, itzultzaile hori erabiltzeko bi ikastaro sortu ditugu, bat erabiltzaile arruntei begirakoa eta bestea profesionalei zuzendutakoa. Bata zein bestea ZOOM bidez eskaini dugu aurten, bizi dugun osasun-egoera honetan partaidetza ahalik eta handiena lortzeko.

HPSrekin elkarlanean hizkuntza-normalizazioko teknikarien ibilbide formatiboa zehaztu eta horri bide emateko hainbat ikastaro sortu eta eman ditugu, 2021eko bukaeratik aurrera.

Itzultzaile neuronalak itzultitako testuak zuzentzeko zerbitzu baten beharra aztertzeko esperientzia piloto bati hasiera eman diogu. Hasieran, Eusko Jaurlaritzako bi sailletatik jasotako testuekin lan egin dugu, zerbitzu hori Jaurlaritza osora zabaltzeko zer ekar lezakeen ondorioztatzeko.

#### **Ebaluazio-arloari dagokiona:**

Euskadiko administrazio publikoetako, Osakidetza eta Ertzaintzako langileentzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko bi deialdi orokorrak egin ditugu.

Euskadiko administrazio publikoetako hautaketa-prozesuetan, euskararen ezagutza neurtzeko ebaluazio-probak egin ditugu.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak kudeatzen dituen aplikazio informatikoaren erabilera sendotu eta behar diren hobekuntzak eta egokitzapenak egin ditugu.

Hautaketa-prozesuetan euskararen ezagutza neurtzeko ebaluazio-probak direla eta, Euskadiko administrazio publikoekin tramitatu behar diren izapideak modu telematikoan burutu ahal izateko, SOLASKIDEGUNE aplikazioa abian jarri dugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako desgaitasun intelektuala dutenentzako hautaketa-prozesuan, euskararen ezagutza neurtzeko ebaluazio-probak egin ditugu, azterketa-ereduak eta horien aplikazioa hautagaien beharrezanetara egokituz.

Euskarazko proben zehaztapen teknikoak etengabe egokitu eta hobetu ditugu.

Ertzaintzaren XXX. promozioan eta Udaltzaingoaren deialdi bateratuan, euskararen ezagutza neurtzeko ebaluazio-probak egin ditugu.

#### **Administrazio-hizkera arloari dagokiona:**

Administrazio publikoen artean zabaldu ditugu lanpostuan euskaraz egiteko erraztasunak ematen dituzten zenbait hizkuntza-tresna eta baliabide, hain zuzen ere, hauek: administrazio-hizkerari eta terminologia juridiko-administratiboari buruzko zalantzak argitzeko zerbitzua (DUDA-MUDA); DUDANET kontsulente datu-basea, eta ELET aplikatiboa (Euskaraz Lan Egiteko Tresna).

Administrazioa Euskaraz" aldizkaria argitaratu dugu (4

En el contexto de los Planes de Uso del euskera de las administraciones públicas vascas la oferta de cursos se va ampliando año a año. En 2021, entre otros, hemos creado dos cursos destinados al uso correcto del sistema de traducción neuronal, uno dirigido a las personas usuarias, en general, y otro, a los profesionales y las profesionales de la traducción. Los dos cursos se han impartido mediante ZOOM, con el objetivo de llegar al mayor número de personas, teniendo en cuenta la actual situación sanitaria.

En colaboración con la Viceconsejería de Política Lingüística, diseñamos el camino formativo de los técnicos y técnicas de normalización lingüística. Con ese fin, hemos creado e impartido una serie de cursos a partir de finales de 2021.

Se ha iniciado una experiencia piloto con dos departamentos del Gobierno Vasco, cuyo objetivo es valorar la necesidad y el coste que supondría contar para todo el Gobierno con un servicio de corrección de textos traducidos a través del sistema de traducción neuronal.

#### **En relación con el Área de Evaluación:**

Se han realizado las dos convocatorias generales de acreditación de perfiles lingüísticos a las personas al servicio de las administraciones públicas de Euskadi, de Osakidetza y de la Ertzaintza.

Se han realizado las pruebas de evaluación del conocimiento de euskera en los procesos de selección de las administraciones públicas de Euskadi.

Se ha consolidado el uso de la aplicación informática que gestiona las convocatorias de acreditación de perfiles lingüísticos y realización de las mejoras y ajustes necesarios.

Se ha puesto en marcha la aplicación SOLASKIDEGUNE, a fin de poder realizar, de modo telemático, los trámites con las administraciones públicas de Euskadi, en relación con las pruebas de evaluación del conocimiento de euskera en los procesos de selección.

Se han realizado las pruebas de evaluación del conocimiento de euskera en el proceso de selección convocado por la Diputación Foral de Gipuzkoa para personas con discapacidad intelectual, adecuando los modelos de examen y su aplicación a las necesidades de las personas candidatas.

Adaptación y mejora continua de las especificaciones técnicas de las pruebas de euskera.

Se han realizado las pruebas de evaluación del conocimiento de euskera en la XXX promoción de la Ertzaintza y en la convocatoria unificada de la Policía Local.

#### **En relación con el Área de Lenguaje Administrativo:**

Difusión entre las administraciones públicas de los siguientes recursos y herramientas lingüísticas destinadas a facilitar el uso del euskera en el puesto de trabajo: servicio de consultas sobre lenguaje administrativo y terminología jurídico-administrativa DUDA-MUDA; base de datos de consultas DUDANET y aplicativo ELET (Euskaraz Lan Egiteko Tresna).

Difusión de la revista "Administrazioa Euskaraz" (4 números

zenbaki eta Solasaldia gehigarria).

Eusko Jaurlaritzaren komunikazio eta tramitazio elektronikoen zerbitzuak hobetzeko proposamenak egin ditugu.

Ikastaro hau diseinatu eta eman dugu "Hizkera argia eta irakurketa erraza" azpi-proiektuaren barruan (SUBPROY 341), IVAPeko Hizkuntza Prestakuntza Arloarekin eta DACIMAREkin batera antolatuta: "COP sobre lenguaje claro en publicación de servicios y procedimientos en euskadi.eus", 32 ordukoa.

"Administrazio-hizkera argia" bloga elikatu dugu.

Administrazio hizkerari buruzko aurrez aurreko ikastaro hau diseinatu eta eman dugu: "Hizkera argia administrazio elektronikoen garaian", Gasteiz (12 ordu).

Hizkera juridikoari buruzko lineako ikastaro hau diseinatu eta eman dugu (2 edizio): "20 aholku testu juridikoen kalitatea hobetzeko" (30 ordu).

Foro birtualetan parte hartu dugu dokumentuen estandarizazio eta normalizazio arloan egindako lanak zabaltzeko.

20 aholku testu juridikoen kalitatea hobetzeko liburua argitaratu dugu.

Zalantza-dantza argitalpena berrizatu eta eguneratu dugu.

HABHZ eta EJI Erekiko lankidetzaren barruan, Tramitaguneren eta gainerako aplikazio horizontalen testuak eta interfazeak estandarizatzen eta normalizatzen jarraitu dugu. 2021ean literal-kopuru hau aztertu eta estandarizatu dugu: euskaraz, 402; gaztelaniaz, 402.

#### **Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari dagokiona:**

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak lehentasunak ezarri ditu itzulpen-espeditteen artean, hizkuntza-normalkuntzarako garrantzitsuen diren espeditteei lehentasuna emanda, baliabideak hobeto kudeatzeko. Ildo berean, lege-testuetan idazketa elebiduna bideratzeko eta bultzatzeko ahaleginak egin ditugu. Era berean, itzultzaile automatiko neuronalaren erabilera ere sustatu dugu, bai Euskadiko Administrazioako erakundeetako itzultzaile profesionalen artean, baita, hizkuntza-maila egokia izanik, euren lana euskaraz eta gaztelaniaz egin behar duten teknikarien artean ere.

Eusko Jaurlaritzaren itzulpen- eta berrikusketa-eskaerei erantzun diegu, eta gaztelaniaren eta euskararen artean 19.000.000 hitz itzuli dira.

Azpitarratu behar da itzulpen- eta berrikusketa-lan guztietan esfortzu handia egin dugula kalitatea hobetzen, batez ere, gizarterako garrantzizkoak diren testuetan; ahalegina, gehien bat, arlo terminologikoa eta idazkera lantzen egin da, era horretara, itzulpen horiek eredu garrantzitsu izan daitezen argitalpenetan, IDABAn eta itzultzaile automatikoan.

Egin ditugun itzulpen guztietatik, aipagarria da estatuko buletin ofizialerako urte osoan itzuli ditugun testuak; batetik, 280 aurkibide euskaratu ditugu, eta, bestetik, 52 xedapen; guztira, milioi bat hitz, gutxi gorabehera.

Ohi denez, 2021ean egin diren lege-aurreproiektuak ere euskaratu ditugu Legebiltzarrerara bidaltzeko.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren lan-esparruan, Trafiko Zuzendaritzarekin batera, iaz gidabaimena lortzeko

y el suplemento Solasaldia).

Realización de propuestas para la mejora de los servicios de comunicación y tramitación electrónica del Gobierno Vasco.

Diseño e impartición del siguiente curso dentro del subproyecto "Lenguaje claro y lectura fácil" (SUBPROY 341), en colaboración con el Área de Formación Lingüística del IVAP y la DACIMA: "COP sobre lenguaje claro en publicación de servicios y procedimientos en euskadi.eus", de 32 horas de duración.

Mantenimiento del blog "Lenguaje administrativo claro".

Diseño e impartición del siguiente curso presencial sobre lenguaje administrativo: "Hizkera argia administrazio elektronikoen garaian", Gasteiz (12 horas).

Diseño e impartición del siguiente curso en línea sobre lenguaje jurídico, en euskera (2 ediciones): "20 aholku testu juridikoen kalitatea hobetzeko" (30 horas).

Participación en foros virtuales para la difusión de los trabajos realizados en el ámbito de la normalización y estandarización documental.

Publicación del libro 20 aholku testu juridikoen kalitatea hobetzeko.

Hemos actualizado la publicación Zalantza-dantza.

Hemos continuado colaborando con la DACIMA y EJI E en la estandarización de textos e interfaces de la aplicación Tramitagune y demás herramientas horizontales del Gobierno. Durante el año 2021, se han analizado y estandarizado 402 literales en castellano y 402 en euskera.

#### **En relación con el Servicio Oficial de Traductores:**

El Servicio Oficial de Traductores ha fijado prioridades entre los tipos de expedientes de traducción, racionalizando los recursos hacia los textos más relevantes para la normalización lingüística. En la misma línea, se están estudiando las vías para impulsar la redacción bilingüe de textos legales. También se ha impulsado la utilización del traductor automático neuronal, tanto para la traducción profesional en toda la Administración vasca, como para los trabajadores y trabajadoras que tienen un nivel suficiente en ambas lenguas cooficiales.

Se ha realizado la traducción y/o revisión de 19.000.000 de palabras entre el castellano y el euskera, respondiendo así a la demanda del Gobierno Vasco.

En todas las traducciones realizadas, subrayamos el esfuerzo que se realiza en los ámbitos de cohesión y unificación terminológica y fraseológica, que luego, aparte del trabajo concreto en sí, quedarán como bases de traducción en las publicaciones, memorias de traducción, IDABA y en el traductor automático.

Entre las traducciones realizadas, destacamos la traducción de 280 sumarios diarios y 52 disposiciones para el Suplemento en euskera del BOE, aproximadamente, un millón de palabras.

Se han traducido los proyectos de ley tramitados y remitidos en 2021 al Parlamento Vasco.

Siguiendo con la labor comenzada en el ámbito que gestiona la Dirección de Tráfico del Departamento de

azterketen galdera-erantzunak itzultzeko lanari segida emanez, arlo horretako oinarriko lege-xedapenak itzuli ditugu. Era berean, gidabaimena lortzeko autoeskoletan erabiltzen den materiala euskaraz sortzen lankidetzan aritu da IZO.

Prozedura Zibilaren Legearen testu kotsolidatua eguneratzeko eta euskaratzeko IZOan egin den lana ere aipatu beharrekoa da. IZO lankidetzan aritu zen lege hau lantaldean itzultzeko proiektuan; lantaldean epaileak, unibertsitateko Zuzenbide-irakasleak eta hizkuntzalariak zeuden, besteak beste, IZO kideak. Etenaldi luze baten ondoren, IZOri egokitu zaio proiektua bukatzea.

Era berean, IVAPeko Hautaketa Zerbitzuak antolatutako ohiko hautaketa-probak itzultzen jarraitu du IZO k, batez ere, Enplegu Eskaintza Publikoaren barruan hautaketa-probak egiteko beharrezko diren galdetegi bereziak.

Kirolaren arloan ere itzulpen garrantzitsua egin dugu, UEFAk futbol-entrenatzaileak prestatzeko sortuta duen material guztia itzuli baitugu euskarara.

IZOko interpretazio-arloak euskararen eta gaztelaniaren arteko 80 interpretazio-saio egin ditu, bilkurak, mahaiak edo beste edozein eratako ekitaldietan euskara erabili ahal izateko normaltasunez. Iaz egindako saioak baino gutxiago izan dira, kooperatibetan orain arte egiten zen interpretazio-lanari utzi zaiolako 2021ean, ez baitira kooperatibak Administrazio publikoaren barnean sartzen.

#### **Terminologia-zerbitzuari dagokiona**

Terminologia-arloa, orain arte IZOren barruan izan dena, Terminologia Zerbitzu bihurtu da aurrerantzean. Zerbitzu berri horrek, IZO lehendik zituen eskumenez gainera, beste batzuk ere hartuko ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik. Zerbitzu horrek bere gain hartu ditu, beraz, euskarazko lege- eta administrazio-hizkuntza eta horren terminologia aztertu, finkatu eta zabaltzeko lanekin batera, Administrazio barneko koordinazio-lana terminologiaren esparruan, eta Euskalterm terminologia datu-basearen kudeaketaren ardura.

### **2022. URTERAKO HELBURU OROKORRAK**

#### **Kudeaketa aurreratuari dagokiona:**

2021eko Kudeaketa Plana ebaluatzea.

2022ko Kudeaketa Plana egitea.

IVAPen 2021eko Jardueren Oroitza argitaratzea.

IZOko zerbitzuen karta, Hizkuntza-eskakizunen Zerbitzuarena eta Hautaketa Zerbitzuaren bi kartak ebaluatzea.

Euskadiko erakunde publiko edota pribatuen Kudeaketa aurreratuari buruzko kanpo ebaluaketetan parte-hartzea.

Kudeaketa aurreratuari edota erakundearen lan-esparruarekin lotutako jarduerari buruzko hainbat foroetan parte-hartzea.

#### **Informatika arloari dagokiona:**

Aplikazio informatikoak egokitu eta hobetzea, herritarrak

Seguridad del Gobierno Vasco, se han traducido y actualizado las leyes básicas que regulan este ámbito. También se ha colaborado en la redacción en euskera del material usado en las autoescuelas para la obtención del permiso de circulación.

También se ha de mencionar, el trabajo realizado en la traducción y actualización del texto consolidado de la Ley de Enjuiciamiento Civil. IZO comenzó como colaborador en dicho proyecto dentro de un grupo de trabajo compuesto por jueces y juezas, lingüistas y profesores y profesoras universitarias de Derecho y, finalmente, después de un periodo de inacción, es el encargado de finalizar y completar el proyecto.

Se ha continuado con la traducción de pruebas de selección ordinarias organizadas por el servicio de Selección, y también con las traducciones especiales que conlleva, en general, la Oferta Pública de Empleo del Gobierno Vasco.

En el ámbito deportivo, se ha realizado la traducción de todo el material educativo de los cursos preparados por la UEFA para la instrucción de entrenadores de fútbol.

El área de interpretación del IZO ha realizado 80 sesiones de interpretación o traducción oral entre el euskera y el castellano en reuniones, mesas y otros eventos, para posibilitar la utilización normalizada del euskera. Son menos sesiones que el año pasado, ya que se ha dejado de dar servicio a las cooperativas, ya que no pertenecen a la Administración pública.

#### **En relación con el Servicio de Terminología**

El área de Terminología, que hasta ahora estaba integrada dentro del IZO, se ha constituido como Servicio de Terminología tras asumir, además de las competencias que ya tenía dentro del IZO, tareas más amplias provenientes de la Viceconsejería de Política Lingüística; ha asumido, por lo tanto, labores de estudio, fijación y difusión de la terminología jurídico-administrativa en euskera, la coordinación del ámbito terminológico dentro de la administración y la responsabilidad de la gestión de la base de datos terminológica Euskalterm.

### **OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2022**

#### **En relación con el Área de Gestión avanzada**

Evaluación del Plan de Gestión 2021.

Elaboración del Plan de Gestión 2022.

Publicación de la Memoria de Actividad del IVAP 2021.

Evaluación de las cartas de servicios de IZO, Perfiles lingüísticos y las dos cartas del servicio de Selección.

Participación en evaluaciones externas de gestión avanzada en organizaciones públicas y/o privadas de Euskadi.

Participación en varios foros sobre gestión avanzada y/o relacionados con la actividad del Instituto.

#### **En relación con el Área de Informática:**

Mejora y adaptaciones necesarias en las aplicaciones

errazago eta erosoago sar daitezten modu elektronikoa Zerbitzu Publikoetan. Horretarako, sistemen arteko zubiak eraiki behar dira, herritarrei ez eskatzeko behin eta berriz administrazioaren esku lehendik dauden dokumentuak; era berean, PLATEA ere integratu behar da, herritarren karpeta sortuta.

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpen-memoretan datu pertsonalak babestea eta anonimo bihurtzea, Open Data Euskadiren bitartez gizartearen esku uzteko.

Itzultzaile neuronal juridiko administratiboaren entrenamendua hobetzea, itzulpen-memoria berriekin.

Diru-sarrerak kontrolatzeko aplikazioak EIKA sistema berrira egokitzea.

Enplegu Publikoaren Eskaintzak kudeatzeko aplikaziorako hobekuntzak eta egokitzapenak, bai hautagaiaren moduluetan, bai epaimahaiaren moduluan.

#### **Azterlan eta Argitalpenak zerbitzuari dagokiona:**

Administrazio publikoaren egitura, antolamendu, lan edo araubide juridikoarekin eta administrazio-zientziarekin zerikusia duen hainbat gairi buruzko ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak antolatu eta burutzea, bakarka edo beste institutu, unibertsitate edo erakunde batzuekin batera. Arreta berezia eskainiko zaie lege-aldaketei.

Honako gai hauen inguruko hainbat azterlan edo ikerlan argitaratzea, batzuetan bakarka eta beste batzuetan beste erakunde batzuen lankidetzarekin: administrazio publikoa, administrazio publikoaren lan eta araubide juridikoa eta EAeko Administrazioaren antolamenduak eta barruko erakundeek dituzten berezitasunak. Hori dena egileek eta ikertzaileek erakunde honi aurkezten dioten materiala abiapuntutzat hartuta.

Zenbait administrazio publikoren eskaerari jarraituz eta beren hobekuntza xede izanik, aholkularitza lana egitea.

Zuzenbide Publikoaren eta Administrazio zientziaren arloetako ikerkuntza sustatzea, eta esparru horietako adituak prestatzea. Hori dena ikerketarako laguntzen deialdia eta Jesús M. Leizaola sariaren deialdia eginez.

Euskal autonomiarekin eta Administrazio-zientziarekin lotutako ikerketa sustatzea eta bultzatzea.

Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkariaren alderdi teknikoa kudeatzea.

